

DONOSTIAN 2025ean ENPRESA BERRIAK SORTZEN LAGUNTZEKO PROGRAMA ARAUTZEN DUTEN OINARRIAK.

ATARIKOA

Donostia Sustapena Sozietateak 2024an hirian berrikuntza arloko erreferente bilakatzera eta Donostiako Berrikuntza Agentziaren eginkizuna betetzera bideratutako estrategia eta kudeaketa-eredu berriranzko trantsizio baten aldeko apustua sendotu du.

Horrek berekin dakar pertsonen, enpresen eta proiektuen bidelagun izatea, pertsonalizazioa, kalitatea eta begirada estrategikoa ardatz hartuta, eta hiriko berrikuntza arloko ekosistema osatzen duten eragile publiko zein pribatu ezberdinekin lankidetzaz aritzearen aldeko apustu argi batekin.

Berrikuntza bultzatzea eta hiriko enpresa-proiektu berritzaileak haztea dira Donostiako Sustapenaren lehentasunetako bat, hiria garatzeko oinarri gisa.

Gaur egun, hiriak 15.600 enpresako enpresa-parkea du. Horrek 1.000 biztanleko 80 enpresako enpresa-dentsitatea suposatzen du. Espainian hirugarren hiri modura kokatzen da, Bartzelona eta Madrilaren atzetik, eta hiriburu adierazgarri batzuen aurretik, adibidez, Valentzia, Malaga edo Bilbo.

Donostiako JET tasa (Jarduera Ekintzailearen Tasa) hazten ari den testuinguru batean, 2023an, ezagutza intentsiboko enpresa-kopuru maximora ere iristen da hiria (6.400 baino gehiago), eta hiriko BPGaren % 49 ordezkatzen dute dagoeneko.

Haatik JET tasa (Jarduera Ekintzailearen Tasa), pandemia aurretiko mailatan kokatzen bada ere, % 7ra iritsi baita Espainiako batez bestekoaren (% 6) gainetik kokatuz, oraindik esparru honetan aurreratuago dauden ekosistemetatik eta EB-ko batez bestekotik ere (% 8,9) urrun samar dago.

Horrekin batera, hiriak enpresa txikia nagusi den enpresa-sarea izaten jarraitzen du; izan ere, ehunaren % 72,5 1-2 langileko enpresak dira, eta % 91,7raino 1-9 langile bitartekoak.

Erronka horiei erantzuteko, besteak beste, Donostiako Sustapenak berrikuntzaren eta ekintzailetzaren aldeko apustu estrategikoa indartu du 2024an, 5,8 milioi euroko zuzkidurarekin. Horrela, 970 pertsonak (emakumeak %54 eta 35 urtetik beherakoak %32) parte hartu dute ekintzaileei laguntzeko zerbitzuetan, arreta berezia eskainiz Ekialdeko barrutiari (%15). Babestutako 229 proiektu ekintzaile berrietatik, % 60 oso berritzaileak dira, eta Donostiako Sustapenak ezagutzaren eta Biozientzien arloko zerbitzu intentsiboen sektoreetarako duen estrategia islatzen dute.

Donostiako Sustapenak hirian enpresa-proiektu berriak sortzearen alde egiten jarraitzen du, hazkunde ekonomikoaren eta tokiko enplegua sortzeko motor gisa.

Horregatik, Donostiako Sustapenak zenbait programa eta neurri antolatzen ditu, enpresa-sare berritzailea sustatzeko eta indartzeko eta enpresa-proiektu berritzaile berriak garatzeko, I+G ekosistemaren bidez hiriaren hazkunde lehiakorra bultzatzeko.

Esparru horretan, laguntza hauek planteatzen dira, berrikuntzaren eta talentuaren garapenaren aldeko apustua oinarri dutenak, Donostiako enpresa berritzaileek sustatutako enpresa-proiektuak hazteko, baldin eta beren produktu, zerbitzu edo prozesuetan ikerketa-jardueratik edo merkatuaren ezagutzatik sortutako ezagutza sartzen badute, eta negozio-estrategia teknologiararen garapen eta erabilera intentsiboan oinarritzen bada.

XEDAPENAK

1. ARTIKULUA. XEDEA

Laguntza horien xedea da enplegua, beren konturakoa edo besteren konturakoa, sortzen laguntzen duten Donostiako enpresa berriak babestea. Arreta berezia eskainiko zaie Donostia Sustapenaren programen eta zerbitzuen bidez proiektuak garatu dituzten ekimenei, baldin eta merkataritza-lokalak irekitzen badituzte eta ikuspegi berritzailea badute.

Laguntza gehigarri bat emango zaie, gehikuntza ekonomikoen edo zenbateko bereizien bidez, honako irizpide hauetakoren bat betetzen duten enpresei:

- Donostia Sustapenaren ekintzailatza-zerbitzu eta/edo -programen onuradun izatea.
- Laneratzeko zailtasun handienak dituzten kolektiboetako pertsonak bultzatutakoak, hala nola emakumeek, 35 urtetik beherakoek edo 45 urtetik gorakoek.
- Beren jarduera kalean bertan kokatutako merkataritza-lokaletan ezartzen dutenean.
- Lokal horietan berrikuntzak egitea.
- Hiriko ekialdeko barrutian egon behar dute.
- Enpresa-proiektu berritzaile bat garatzea, hau da, oinarri hauen 10. artikuluan ezarritakoarekin bat datozenak.

Donostia Sustapeneko beste zerbitzu eta programa batzuen ildotik, laguntzen deialdi honen helburua da gizonen eta emakumeen arteko aukera-berdintasuna sustatzea eta enplegua lortzeko zailtasun handiagoak dituzten kolektiboen inklusioa sustatzea.

2. ARTIKULUA. BALIABIDE EKONOMIKOAK

Donostia Sustapenak BERREHUN ETA LAROGEI MILA 280.000,00 € EURO bideratuko ditu laguntza horietara.

Fomento de San Sebastián, S.A. sozietateak beretzat gordetzen du zenbateko hori aldatzeko eskubidea, egoki iritziz gero.

3. ARTIKULUA. ONURADUNAK

Laguntzaren onuraduntzat hartuko da laguntza ematea eragin zuen jarduera egin behar duena edo laguntza ematea legitimatzen duen egoeran dagoena, betiere oinarri hauetan jasotako baldintzak betetzen baditu eta, bereziki, laguntza mota bakoitzari dagozkionak.

Laguntzen onuradun izan daitezke Estatuko edo atzerriko pertsona fisiko edo juridikoak, publikoak edo pribatuak, bai eta aurreko horietako nortasunik gabeko taldeak ere, ordenamendu juridikoaren arabera balio osoz eraturakoak, oinarri hauetan ezarritako baldintzak betetzen badituzte. Kanpoan geratzen dira ondare-sozietateak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Sozietateen gaineko Zergari buruzko urtarilaren 17ko 2/2014 Foru Arauaren 14. artikulua arabera definitzen direnak.

Oinarri hauetan zehaztuko da zer baldintza bete behar diren laguntzak eskatzeko eta nola egiaztatu. Nolanahi ere, Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren (aurrerantzean, DLO) 13. artikuluan aurreikusitakoa bete beharko da. Artikulu hori, ondorio horietarako, aplikagarritzat jotzen da berariaz.

Ezin izango zaie laguntza eman pertsona fisiko edo juridikoei:

- Indarrean dauden xedapenek ezarritako zerga-betebeharrak eta/edo Gizarte Segurantzarekikoak egunean ez izatea.
- Dirulaguntza eta/edo laguntza publikoak lortzeko aukera galtzea dakarren ebazpen irmo baten bidez zigortuak izatea, edo horretarako ezgaitzen dituen legezko debekuren baten eraginpean egotea, Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren 23.2 artikuluan xedatutakoaren arabera sexuagatiko diskriminazioagatik zigortutakoak barne, eta pertsona fisikoak edo onuraduna sexu-diskriminazioagatik edo emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko araudia ez betetzeagatik administrazio- edo zigor-zehapena jaso dutenak, dagokion zehapenean ezarritako aldian. Era berean, ezingo dute laguntzarik edo dirulaguntzarik jaso Estatuko araudiaren arabera berdintasun-plan bat indarrean izan behar duten enpresek, ez eta 50 langile baino gehiagoko enpresek ere, baldin eta egiaztatzen ez badute sexu-jazarpena, sexuan oinarritutako jazarpena eta sexu-indarkeriak prebenitzeko eta horiei aurre egiteko neurriak ezarri dituztela, emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan Estatuko legeriak ezarritakoaren arabera.
- Donostiako Udalarekin eta/edo Donostia Sustapenarekin zorrak izatea.
- Aurretik emandako laguntzak osorik edo zati batean itzuli gabe izatea, itzuli beharreko zenbatekoa ordaindu dela egiaztatzen ez den bitartean.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, interesdunek eskubidea dute administrazio jardulearen esku dauden edo beste edozein administraziok egindako agiriak ez aurkezteko. Gainera, administrazio jarduleak agiri horiek kontsultatu edo eskatu ahal izango ditu, interesdunak horren aurka egin ezean; kasu horretan, ziurtagiriak aurkeztu beharko ditu.

Donostia Sustapenak, Donostiako Udalaren jabetzako elkarreragingarritasunaren bidez, zuzenean kontsultatuko die administrazio publiko eskudunei honako informazio hau prozedura hau ebazteko eta ordaintzeko:

- Udalarekiko eta Donostia Sustapenarekiko ordainketak egunean izatearen ziurtagiriak.
- Foru Ogasunarekiko ordainketak egunean dituela egiaztatzen duten agiriak.
- Onuradunaren eta sustatzaileen Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren (JEZ) historikoa
- Gizarte Segurantzarekiko ordainketak egunean dituela egiaztatzen duten agiriak.

Dirulaguntza eta ordainketak eskatzeko unean Udal Diru-bilketa, Foru Ogasuna eta/edo Gizarte Segurantzarekin egunean ez dauden onuradunek betebeharrak horiek egunean dituztela egiaztatu beharko dute HAMAR (10) egun balioduneko epean, jakinarazten zaienetik zenbatzen hasita.

4. ARTIKULUA. ONURADUNEK DEIALDI HONETAN PARTE HARTZEKO BETE BEHARREKO BALDINTZAK

Onuradunek honako baldintza hauek bete behar dituzte deialdian parte hartzeko:

- a. Laguntzaren xede den jardueraren eta lantokiaren helbide fiskala Donostiako udalerrian egotea. Pertsona fisikoen edo sozietate zibilen kasuan, bestelako helbide sozial eta fiskal bat onartuko da, betiere, Sustapenaren iritziz, jarduera Donostiako lantoki batean egiten dela nahikoa ebidentzia badago.
- b. Enpresaren sorrera eta hasierako alta Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan, edo hala dagokionean (abeltzaintzako, nekazaritzako, basogintzako, arrantzako eta abarrekiko jarduerak) zentsu-aitorpenaren alta 2025eko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitartean egitea, bi egun horiek barne.
- c. Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan ez matrikulatzea jarduera berean edo antzekoan, laguntza eskatzen duen enpresa sortu aurreko sei hilabeteetan.
- d. Aurreko enpresa baten forma juridikoa aldatze hutsetik sortutako enpresa berriak ez izatea. Horregatik, enpresa berriek ez dute onurarik izango, baldin eta sustatzaileek jarduera berria abian jarri aurreko sei hilabeteetan jarduera berean edo antzekoan titular gisa jardun badute, banaka edo sozietatean (parte hartzea edozein dela ere).
- e. 2025eko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitartean Gizarte Segurantzaz gutxienez alta berri bat ematea eta lehen urtean mantentzea.

Bazkideen alta Langile Autonomoen Araubide Berezian (LAAB), dagokion mutualitatean (zenbait kolektibo profesionalen kasuan) edo Araubide Orokorrean egin ahal izango da. Era berean, sortutako enpresa berrian kontratatutako pertsonen

Erregimen Orokorreko altari egokitu ahal izango zaio, baldin eta gutxienez **% 50eko lanaldia duten kontratu mugagabeak badira eta enpresaren lehen urtean kontratazioari eusten bazaio**. Ez dira onartuko aldizkako kontratu mugagabe finkoak edo % 50etik beherako lanaldietakoak.

Laguntzaile autonomoen altak alta berritzat hartuko dira, baldin eta laguntza eskatzen den jarduera ekonomikoari lotuta badaude.

- f. Laguntza lortu nahi duen enpresa eratu aurretik, bazkideren batek Donostia Sustapenak aldian-aldian eskaintzen dituen prestakuntza-saioak burutu izana edo Donostia Sustapeneko ekintzailatza-programek proposatutako ibilbidea osatu izana.

Hala ere, Donostia Sustapenak prestakuntza hori egitetik salbuetsi ahal izango du, baldin eta **ekintzailatza-proiektuaren alde aurreko azterketa bat egin dela egiaztatzen bada, enpresa-plan bat edo gogoeta-dokumentu bat eginez. Plan horrek honako hauek jaso beharko ditu gutxienez:**

- Sustatzailearen edo talde sustatzailearen identifikazioa
- Negozio-ideiaren deskribapena
- AMIA
- Merkatuaren azterketa eta merkataritza-estrategia
- Analisi ekonomikoa

Donostia Sustapenak salbuespenezko beste bide batzuk baloratu ahal izango ditu, baldin eta arrazoi sendoak badituzte.

- g. Pertsona juridikoak badira, jarraian zerrendatzen diren baldintza guztiak betetzen badituzte:

1. Bere aktiboa 10 milioi eurotik gorakoa ez izatea, edo bere eragiketa-bolumena, Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunean definitzen den bezala, 10 milioi eurotik gorakoa ez izatea.

2. Langileen batez bestekoa 50 langilera ez iristea. Plantillaren batez bestekoa kalkulatzeko, lanaldi osoko urteko langileak hartuko dira kontuan. Lanaldi partziala duten langileen kasuan, horien zenbaketa lan egindako orduen arabera izango da.

3. Aurreko 1. eta 2. zenbakietan jasotako baldintzaren bat betetzen ez duten enpresek zuzenean edo zeharka % 25eko partaidetza ez izatea.

Erakundea sozietate-talde bateko kide denean, Merkataritza Kodearen 42. artikuluan xedatutakoaren arabera, aurreko 1. eta 2. zenbakietan adierazitako magnitudeak talde horretako erakundeen multzoari buruzkoak izango dira.

Aktibo osoa eta eragiketen bolumena zenbatzeko, Merkataritza Kodearen 46. artikuluan eta hura garatzeko arauetan aurreikusitakoaren arabera bidezkoak diren ezabaketak hartuko dira kontuan.

Ezingo dira onuradun izan:

- Irabazi-asmorik gabeko fundazioak, erakundeak eta elkarteak.
- Ezin izango dira onuradun izan sektore publikoko erakundeen mendeko erakundeak edo % 25 baino gehiagoko partaidetza dutenak (halakotzat hartzen dira Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 3. artikuluan jasotako erakundeak (lege horren bidez, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten da Espainiako ordenamendu juridikora), irabazi-asmorik gabeko erakundeak, ondare-sozietateak eta/edo elkargo profesionalak.

5. ARTIKULUA. LAGUNTZEN ZENBATEKOAK

Zenbateko desberdinak aukeratu ahal izango dira, sortutako enpresaren ezaugarrien arabera.

Eskaera bakarra aurkeztu ahal izango da enpresa bakoitzeko.

Sortutako enpresa berrientzako laguntzaren gehieneko zenbatekoa honako hau izango da, kalean bertan kokatutako merkataritza-lokal bat alokairuan edo jabetzan duten kontuan hartuta:

- HAMAR MILA (10.000 €) EURO, **merkataritza-lokala kalean bertan DUTEN** enpresa berrientzat
- BOST MILA ETA EHUN (5.100 €) EURO, **merkataritza-lokala kalean bertan EZ DUTEN** enpresa berrientzat.

Zenbateko horietara iritsi ahal izango da honako kasu hauek betetzen direnean:

Oinarrizko laguntza

Enpresa berri guztientzako oinarrizko laguntza **MILA ETA BOSTEHUN (1.500,00 €) EURO** artekoa izango da.

Oinarrizko zenbatekoa handitu ahal izango da laguntza guztietarako, baldin eta honako kasu hauetakoren bat betetzen bada: Aipatutako igoerak metagarriak dira:

1.- Honako kolektibo hauetako bateko kide izateagatik igoera:

- **EHUN ETA BERROGEITA HAMAR (150,00 €) EURO** arteko igoera, bazkideren batek honako kolektibo hauetako bateko kide izateko baldintza betetzen badu:

- Emakume ekintzaileak.
- 45 urtetik gorakoak
- 35 urtetik beherakoak

Adierazitako kolektiboren batekoa dela justifikatzeko, enpresaren alta-data hartuko da erreferentziazat. Aurreko puntuetan deskribatutako kolektibo bateko baino gehiagoko kide izatea **ezin da metatu** gehikuntza horren ondorioetarako, eta, beraz, egoeretako bat bakarrik egiaztatu beharko da.

- **LAUREHUN ETA BERROGEITA HAMAR (450,00 €) EURO** arteko igoera, Donostia Sustapeneko ekintzailetza-zerbitzuen eta/edo -programen ibilbideak amaitu dituzten enpresentzat.

Donostia Sustapenak egiaztatuko du sortutako enpresak edo sustatzaileek igoera hori eskatzen duten enpresei zerbitzu eta programa horietan parte hartzen dietela.

2.- Kalean bertan kokatutako merkataritza-lokaletarako igoera

Enpresak bere jarduera garatzeko merkataritza-lokal bat badu kalean bertan, alokairuan edo jabetzan, honako kontzeptu hauetakoren batengatik handitu ahal izango da: alokairua, lokalean edo kokapenean eraberritzea.

Alokairuagatiko eta erreformengatiko igoerak ez dira bateragarriak elkarren artean, eta, beraz, enpresak bakarra aukeratu beharko du eskaera aurkeztean.

Gainera, lokala Ekialdeko Barrutian badago (Altza, Intxaurrondo eta Mirakruz-Bidebieta auzoetan), enpresak igoera gehigarri bat jaso ahal izango du, aurretik aukeratutako aukera gorabehera.

Igoera horien zenbatekoa honako hau izango da:

- Alokairuagatiko igoera:
 - ✓ **BI MILA EURO (2.000,00 €)** kalean bertan kokatutako merkataritza-lokal bat alokatu edo horren hipoteka ordaintzeko.
- Jarduera egingo den lokaleko obragatiko gehikuntza:
 - ✓ **BOST MILA (5.000,00€) EURO** arte, enpresaren jarduera garatzen den kalean bertan kokatutako merkataritza-lokalean egindako obra edo birgaitze gastuetarako.

2025eko urtarrilaren 1etik 2025eko urriaren 31ra bitartean alta eman duten enpresek egindako obren fakturak aurkeztu beharko dituzte, eta fakturen zenbatekoari dagokion igoera (zerga-oinarria) emango zaie, gehienez 5.000 €-koa.

2025eko azaroaren 1etik 2025eko abenduaren 31ra bitartean alta eman duten enpresek egin beharreko obren aurrekontua aurkeztu ahal izango dute. Kasu horretan, emandako zenbatekoa aurkeztutako aurrekontuen zenbatekoa izango da, eta gehienez 5.000 €. Zenbateko hori ezin izango da ordaindu justifikazioa aurkeztu arte, eta inoiz ez da izango hasieran emandakoa baino handiagoa, nahiz eta azken gastua aurreikusitakoa baino handiagoa izan.

- Ekialdeko barrutian kokatzeagatik igoera
 - ✓ **BOSTEHUN (500,00 €) EURO** arte, kalean bertan kokatutako merkataritza-lokala hiriko ekialdeko barrutian badago.

3.- Proiektu berritzaileak:

HIRU MILA (3.000,00 €) EURORA arteko igoera, artikuluko honetan ezarritako irizpideen arabera berritzailetzat jotzen diren proiektuak dituzten enpresentzat.

Proiektu berritzailearen bidezko gehikuntzaren kasuan, bi bide hauetako baten bidez balidatu ahal izango da:

1. Eskatzaileak Donostia Sustapenak kudeatzen dituen potentzial handiko ekintzailetza bultzatzeko programetako batean parte hartu izana: EKINN+, Inkubagailua, edo ildo horretan proiektu berritzaileetarako garatu ditzakeen beste batzuk.
2. Proiektuaren memoriaren ebaluazio baten bidez, "Proiektu Berritzailearen Memoria" eranskineko gidoiarekin batera. Kasu horretan, proiektu berritzailetzat hartzeko, gutxienez 25 puntu lortu beharko dira, eta honako irizpide hauen arabera baloratuko dira:

ENPRESA BERRITZAILEAREN BALORAZIOA	
	50
1. ENPRESA-BERRIKUNTZA ETA BIDERAGARRITASUN MAILA	30
2. I+G+B ETA TEKNOLOGIAREKIKO LOTURA MAILA.	20

6. ARTIKULUA. DIRUZ LAGUNDU BEHARREKO KONTZEPTUAK

Diruz lagungarriak izango dira enpresaren lehen hilabeteak abian jartzeko eta jardunean jartzeko beharrezkoak diren gastuak, baldin eta Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan (EJZ) alta eman baino 2 hilabete lehenago egiten badira, edo, hala badagokio, zentsu-aitorpenean alta eman eta hurrengo 12 hilabeteetan.

Kalean bertan kokatutako merkataritza-lokalak eraberritzeari lotutako gastuen kasuan, alta eman aurretik markatutako 2 hilabeteak baino lehenagokoak izan daitezke.

Diruz lagungarriak diren gastuak honako hauek izan daitezke:

- Enpresa eratzeko gastuak, hala nola: irekitzeko lizentziak, jarduera-lizentziak, notarioaren eta merkataritza-erregistroaren gastuak, bai eta negozioa abian jartzeko nahitaezko beste tasa batzuk ere.
- Lehendik dauden enpresak erostea, enpresak garatzen duen jarduerarekin jarraitzeko.
- Jarduera ekonomikoari lotutako inbertsioak. Ibilgetu materiala finantza-errentamenduaren bidez (leasing) eskuratuz gero, interesik gabeko kuotak diruz lagundu ahal izango dira.
- Ibilgailuak erosten direnean, soil-soilik jarduera ekonomikoaren garapenari modu frogagarrian eragiten diotela frogatzen denean.
- Patenteak, erabilgarritasun-modeloak, markak eta diseinu industrialak izapidetzearen eta lortzearen ondoriozko gastuak.
- Jarduerari berari eta bazkideen prestakuntza profesionalari lotutako prestakuntza-gastuak, gaitasunak hobetzera bideratuak. Kanpoan geratzen dira tituluak lortzeko gastuak, bidaia-gastuak, joan-etorriak, ostatuak edo edozein dieta mota (gosariak, bazkariak edo afariak).
- Langile autonomoen erregimen berezian eta Gizarte Segurantzako erregimen orokorrean kotizazioa ordaintzeko buruzko kuotak.
- Soldatak (nominak). Baldin eta dirulaguntza hori jasotzeko Gizarte Segurantzaren alta eman beharra lan-kontratu mugagabe baten bidez justifikatu bada.
- Jarduera ekonomikoari lotutako higiezinak egokitzeko eta/edo birgaitzeko obrak.
- Proiektuari lotutako komunikazio-gastuak. Horien artean sar daitezke publizitate-kanpainak, webguneen diseinua, sare sozialen diseinua...
- Kalean bertan kokatutako merkataritza-lokal bat alokatzeko edo hipoteka ordaintzeko goera eskatu badute, honako gastu hauek aurkeztu ahal izango dituzte:
 1. Jarduera ekonomikoari lotutako higiezinaren errentamendu-gastuak (alokairuak). Ez da alokairu-kontraturik onartuko, baldin eta kontratu horien jabeak bat badatoz enpresako bazkideetako batekin eta/edo 2. mailarainoko ahaideekin.
 2. Merkataritza-lokalaren hipoteka-maileguaren kuotak.
 3. Jardueraren lokalari lotutako higiezinaren kudeaketako gastuak.
- Merkataritza-lokalen obra- edo birgaitze-gastuetarako gehikuntza eskatu bada, diruz lagungarriak diren eta atal honetan justifikatu beharko diren gastuak honako hauek izango dira:
 1. Erakusleihoak eta pertsianak berritzea edo ordeztea.
 2. Barruko eta kanpoko argiztapena.
 3. Igeltserotzako, arotzeriako, iturgintzako, elektrizitateko eta lokaleko pinturako obrak eta berrikuntzak
 4. Fatxada birmoldatzea eta berritzea: igeltserotza-, arotzeria- eta pintura-lanak.
 5. Irisgarritasuna.
 6. Lokala eraberritzeko proiektu teknikoa, kide anitzeko teknikari eskudunak sinatua, eta lokalaren obra-lizentziari eta lokala irekitzeko lizentziari dagokion udal-tasa, hala badagokio.
 7. Antzeko beste batzuk.

Gastuak justifikatzeko aurkezten diren fakturak osorik ordainduta egon beharko dira, diruz lagundu ahal izateko.

Jarduera egingo den merkataritza-lokalean obrak egiteko aurrekontuak aurkezten direnean (azaroko eta abenduko altetarako bakarrik), emandako zenbatekoa aurrekontu horiei egokituko zaie (zerga-oinarria), baina ez da ordainduko justifikazioaren unean dagozkion fakturak aurkeztu arte. Ordaindu beharreko zenbatekoa ez da inoiz emandako zenbatekoa baino handiagoa izango, eta ezingo da izan eskabide-fasean aurkeztutako aurrekontuetatik kanpoko gastuena.

Justifikaziorako ez dira kontuan hartuko 100 eurotik beherako (zergak kenduta) gastuaren fakturak eta frogagiriak. Autonomo-kuotak izan ezik, horiek diruz lagungarriak izango baitira zenbatekoa edozein dela ere.

Kreditu- edo zordunketa-txartelarekin, banku-transferentziarekin edo helbideratze-ordainagiriarekin egindako ordainketak bakarrik onartuko dira. Ez da eskudiruzko ordainketarik onartuko, ez eta merkatuan ager daitekeen Bizum sistemaren edo antzeko tresna/aplikazioaren bidez ere.

Egindako ordainketen frogagiriekin egindako eragiketaren informazio xehatu guztia jasoko dute (onuraduna, kontzeptua, zenbatekoa, data, etab.), eta inola ere ez dira onartuko banku-mugimenduen zerrendak.

Inola ere ez dira diruz laguntzeko moduko gastutzat hartuko honako hauek:

- Enpresak gerora merkaturatuko duen azken produktua lortzeko beharrezkoak diren merkataritza-produktuak eta/edo lehengaiak erostea, eta laginak egiteko edo ekoizteko produktuak erostea.
- Material suntsikorrak eta bulegoko materiala erostea.
- Hornidurak (argia, ura, telefonoa...).
- Joan-etorrien eta ostatuaren gastuak edo edozein dieta mota (gosarien, bazkarien edo afarien gastuak).
- Eguneroko zerga- eta kontabilitate-liburuak eta -betebeharrak edukitzeari buruzko aholkularitza fiskala, laborala, kontabilitatekoa, juridikoa edo administratiboa.
- Balio erantsiaren gaineko zerga (BEZ) eta gainerako zeharkako zergak.
- 100 eurotik beherako fakturak, zergarik gabe. Autonomo-kuotak izan ezik, horiek diruz lagungarriak izango baitira zenbatekoa edozein dela ere.

Eta, bereziki, alokairuen kasuan, honako hauek ez dira diruz laguntzeko moduko gastutzat hartuko:

- Betebehar bat beteko dela bermatzen duten fidantzak, gordailuak edo antzekoak.

7. ARTIKULUA. BESTE LAGUNTZA BATZUEKIKO

BATERAGARRITASUNA

Laguntza hauek bateragarriak izango dira beste edozein administrazio edo erakunde publiko edo pribatuk (nazionalak, Europar Batasunekoak edo nazioartekoak) helburu bererako emandako dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideekin, hargatik eragotzi gabe beste dirulaguntza batzuk arautzen dituen araudiak horri buruz ezar dezakeena, betiere honako baldintza hauek betetzen badituzte:

Laguntza horien azken hartzaile guztiek, bai jarduera ekonomikoa egiten duten pertsona fisikoek (autonomoek), bai pertsona juridikoek, nahitaez bete beharko dituzte Europako Batzordearen 2023ko abenduaren 13ko 2023/2831 (EB) Erregelamenduan ezarritako baldintzak eta mugak laguntza horiek emateko (erregelamendu hori Europar Batasunaren funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. eta 108. artikulua *de minimis* laguntzei aplikatzeari dagokio).

Hori horrela, azken hartzaile bakoitzari eman ahal izango zaizkion *de minimis* laguntzen zenbateko osoa ezingo da izan 300.000 €-tik gorakoa hiru ekitaldi fiskaleko edozein alditan. Ondorio horietarako, araubide honen eraginpean daudenek erantzukizunpeko berariazko adierazpena aurkeztu beharko dute hiru ekitaldi fiskaletan jasotako laguntzei buruz, dagokion ekitaldi fiskalean eta aurreko bi ekitaldi fiskaletan dagokion muga kuantitatiboa betetzeari dagokionez. Zenbaketa horretarako, laguntza emateko unea hartuko da kontuan.

Dirulaguntza emateko ebazpenean, dirulaguntza gordinaren zenbatekoaren baliokidea jakinaraziko zaio onuradunari, *de minimis* mugaren ondorioetarako.

Oinarri hauetan adierazitakoaren arabera jasotako laguntzaren zenbatekoa ezin izango da inola ere izan, bakarka hartuta edo beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin batera, diruz lagundutako jardueraren kostua baino handiagoa.

8. ARTIKULUA. ESKABIDEAK ETA AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK.

Laguntza horren deialdia dirulaguntzen datu-base nazionalean argitaratuko da, eta, ondoren, horren laburpena argitaratuko da Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean. **Laguntza eskaerak laburpena Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik laguntza honetara bideratutako baliabide ekonomikoak agortu arte aurkeztu ahal izango dira.**

EJZn (edo zentsu-aitorpenean, hala dagokionean) **oinarrien iragarkia argitaratu aurretik alta eman duten enpresen kasuan**, bi hilabeteko epea izango da, iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Alta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean edo **argitaratzen den datarekin eta ondorengo bata batekin bat badator**, epea 2 hilabetekoa izango da EJZn alta ematen denetik (edo zentsu-aitorpenean, hala badagokio), eta beti 2025eko abenduaren 31 baino lehen.

Eskabideak modu telematikoan aurkeztu beharko dira, Donostia Sustapenaren webgunearen bidez (www.fomentosansebastian.eus).

Informazio, zalantza edo kontsulta gehiago nahi izanez gero, Donostia Sustapenak [943482800](tel:943482800) telefono-zenbakia edo fomentoss@donostia.eus helbide elektronikoa izango du pertsona guztien eskura. Helbide horretara jo ahal izango dute, betiere "gaian" honako hau adieraziz: Sorrera laguntza 2025

Eranskinak osorik bete beharko dira, eta behar bezala sinatuta egon beharko dute.

Dagokion eskabide-orriarekin batera, oinarri hauetan eskatzen den administrazio-agiri guztiak erantsiko dira.

Dirulaguntza eskatu nahi duten enpresek honako agiri hauek aurkeztu beharko dituzte:

Agiriak:

	ERANSKINAK
1	Eskabide-eranskina (<i>Sinadura elektronikoa behar da</i>)
2	Enpresa eskatzailearen banku-datuak, banketxeak edo banku-agiri baliokideak zigilatuta (titulartasun-ziurtagiria).
3	Finantza-memoria, fakturak eta ordainagiriak.
4	Proiektu Berritzailearen Memoria (gehikuntza hori eskatuz gero soilik)

	ENPRESAREN AGIRIAK
5	Enpresa eskatzailearen IFK
6	Pertsona juridikoa bada, eratze-eskritura edo -dokumentuak, estatutuak edo fundazio-akta, jarduera arautzen duten arauak jasotzen dituenak, eta, hala badagokio, dagokion erregistro publikoan behar bezala inskribatuta dagoena, pertsona juridiko motaren arabera.
7	Berezko nortasun juridikorik gabeko sozietate zibilen kasuan, Foru Ogasunak zigilatutako kontratu pribatua sartuko da.
8	Fakturen kopia eta horien ordainagiria, 5. artikuluan xedatutakoaren arabera. (Dokumentu horiek eskabidea egiten den unean edo justifikatzeko unean aurkeztu ahal izango dira) (Azaroko eta abenduak alden kasuan, eta obretarako bakarrik, aurrekontuak aurkeztu ahal izango dira).
9	Kontratu mugagabearekin kontratatutako pertsonen kontratuaren kopia, enplegua sortzeko baldintza enpresari lotutako langileak kontratatzearen ondoriozkoa denean.

	BAZKIDEEN AGIRIAK
10	Eskatzailearen eta laguntza jaso nahi duten gainerako bazkideen NANA.
11	Sustatzailearen lan-bizitza, Gizarte Segurantzako alta berria dokumentatzen duena, eta horrek enplegua sortzeko baldintza betearazten duena, edo dagokion mutualitateko

	altaren kopia, elkargokide diren profesionalen kasuan.
12	Donostia Sustapenak eskainitako prestakuntza ez egiteagatik salbuespena egiaztatu behar izanez gero: ✓ Enpresa-plana edo hausnarketa-dokumentua, oinarri hauetako 4. artikuluan adierazitako gutxieneko edukiarekin.

IGOERAK EGIAZTATZEKO AGIRIAK	
1 3	<u>Alokairu edo hipotekako</u> igoerarako: bi aldeek behar bezala sinatutako errentamendu-kontratua, edo hipoteka-maileguaren eskritura.
1 4	Merkataritza-lokalean egindako obren fakturak. Obrak eskaera aurkeztu aurretik egin diren kasuetan bakarrik emango da obren gehikuntza, azaroko eta abenduko aldetan izan ezik, horietarako aurrekontua aurkeztu ahal izango baita.

Onuradunak bere gain hartzen du erantzukizunpeko adierazpen guztien eta aurkeztutako gainerako agirien egiazkotasunaren gaineko erantzukizun osoa.

Eskabidearen eranskinean adierazten ez diren gehikuntzak ez dira kontuan hartuko.

Donostia Sustapenak beretzat gordetzen du aurreko baldintzetako edozein betetzen dela egiaztatzekeo agiriak edo informazio osagarria eskatzeko eskubidea.

Pertsona edo erakunde eskatzaileak aurrez aipatutako dokumenturen bat aurkeztu badu Donostia Sustapeneko laguntza-programaren batean 2020aren ondoren parte hartzeagatik, ez ditu berriro aurkeztu beharko lehendik aurkeztutako agiriak, betiere indarrean jarraitzen badu eta/edo inolako aldaketarik izan ez badu.

Dirulaguntza eta ordainketak eskatzeko unean Udal Diru-bilketa, Foru Ogasuna eta/edo Gizarte Segurantzarekin egunean ez dauden erakundeek egiaztatu beharko dute egunean daudela, eta, horretarako, Donostia Sustapenak zuzenketa-jakinazpen bat bidaliko du.

Onuradunak bere gain hartzen du erantzukizunpeko adierazpen guztien egiazkotasunaren gaineko erantzukizun osoa, bai eta aurkeztutako informazio eta gainerako agiri guztiarenak ere.

9. ARTIKULUA. ESKABIDEETAKO AKATSAK ZUZENTZEA

Donostia Sustapenak agiri guztia aztertu ondoren egiaztatzen bada ez dagoela beteta edo dokumenturen bat falta dela, eskatzaileari eskatuko zaio dokumentaziorik eza zuzentzeko edo beharrezko dokumentuak aurkezteko **HAMAR (10) egun balioduneko** epean, eta adieraziko zaio, hala egiten ez badu, eskabidea baztertuko dela, izapide gehiagorik gabe, eta, ondorioz, ukatzeko ebazpena emango dela. Gainera, egokitze jotzen duenean, Donostia Sustapenak eskubidea izango du pertsona edo erakunde eskatzaileak aurkeztutako edozein dokumentu edo informaziori buruz egoki iritzitako argibide guztiak eskatzeko.

Zuzenketak onuradunak harremanetarako helbide elektroniko gisa ematen duen posta elektronikoaren bidez jakinaraziko dira. (JAKINARAZPENETARAKO HELBIDE ELEKTRONIKOA). Nolanahi ere, jakinarazpenak web-aplikazioan ere eskuragarri egongo dira, pertsona edo erakunde eskatzaile bakoitzaren espedientearen barruan.

Balitzko zuzenketak egiteko eskatutako agiriak hasierako eskabidea egiteko bide bera erabiliz aurkeztuko da. Ez da onartuko posta elektronikoz egindako zuzenketarik.

Donostia Sustapenak emandako berariazko ebazpen arrazoitu baten bidez emango edo ukatuko dira laguntzak, oinarri hauetan ezarritako betekizun eta baldintza guztiak betetzen diren ala ez kontuan hartuta.

10. ARTIKULUA. LAGUNTZA IZAPIDETZEA ETA EBAZTEA

Eskabideak erregistro-ordenaren arabera ebaluatu eta ebatziko dira, baliabide ekonomikoak agortu arte.

Eskatutako laguntzaren ebazpena emateko epea **LAU (4) hilabetekoa** izango da, eskabidea erregistratzen den egunetik zenbatzen hasita, eta epe horretan ez dira zenbatuko agiriak zuzentzeko epeak. Laguntza emateko ebazpena ezarritako epean ematen ez bada, ez da laguntza emango.

Eskatzaileak eskabidean adierazi beharko du zer igoera lortu nahi duen. Donostia Sustapenak erabakiko du eskatzaileak eskatutako igoeren baldintzak betetzen dituen, eta ez du nahitaez jaso beharko eskabide-eranskinean adierazi ez den igoerarik.

Eskaera ebazteko, Donostia Sustapenak pertsona edo erakunde eskatzaileak aurkeztutako nahitaezko agiriak berrikusiko du. Eskatu gabe aurkeztutako beste edozein agiri ez da zertan berrikusi laguntza ebazteko.

Donostia Sustapenak berariazko ebazpen bidez emango edo ukatuko du laguntza, posta elektronikoz jakinaraziko da eta dagokion espedientearen eskuragarri egongo da atarian.

Ebazpenak eskatzaileei jakinaraziko zaizkie, eta onuradunen zerrenda argitaratuko da.

Deialdi honi buruzko jakinarazpenak bitarteko elektronikoaren bidez egingo dira, eskabidean jakinarazitako helbide elektronikoaren bidez.

Emandako ebazpenarekin bat ez badatoz, alegazioak aurkeztu ahal izango dira, gehienez ere hilabeteko epean, ebazpen honen datatik zenbatzen hasita. Horretarako, Donostia Sustapenarekin harremanetan jarri beharko da, eta hark izapideak egiteko egin beharreko prozeduren berri emango dio. Donostia Sustapenak erabakitzen duenari jarraituko zaio, eta, hala badagokio, bi alderdiak Donostiako Epaitegi eta Auzitegien jurisdikzioaren mende jarriko dira.

11. ARTIKULUA. LAGUNTZEN JUSTIFIKAZIOA ETA ORDAINKETA

Diruz lagungarriak diren gastutzat hartuko dira, oro har, diruz lagundutako jardueraren izaerari zalararik gabe erantzuten diotenak eta oinarri hauetan ezarritako epean eta baldintzetan egiten direnak. Diruz lagungarriak diren gastuak eskuratzeko kostua ezin izango da inola ere merkatuaren balioa baino handiagoa izan.

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 31. artikulua aplikatuko zaie diruz lagungarriak diren gastuei, berariaz bidalita.

Enpresa berriak sortzeko laguntzak bi zatitan ordainduko dira, gastu guztiak justifikatu ondoren.

Lehenengo ordainketa laguntzaren ebazpenaren egunean egingo da, eta eskaera egiten den unean justifikatutako gastuen zenbatekoa izango da, gehienez ere emandako laguntzaren % **80ra arte**.

Bigarren ordainketa enpresaren alta-datatik (Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren data, edo zentsu-aitorpenaren alta-data) **12 hilabete igaro ondoren** egingo da, eta azken justifikazioa aurkeztu ondoren. Justifikatutako gainerako zenbatekoa ordainduko da, emandako laguntzaren gehienekora iritsi arte. Ordainketa hori egiteko, enpresak lanean jarraitu beharko du lehenengo 12 hilabeteetan.

Azken justifikazioa aurkezteko gehieneko epea hilabetekoa (1) izango da, enpresaren alta-datatik (Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan alta emandako eguna, edo zentsu-aitorpenaren alta-data) 12 hilabete igaro ondoren.

Epe horiek betetzen ez badira, ez da laguntzaren bigarren ordainketa egingo.

Onuradunak agiri hauek aurkeztu behar du laguntza justifikatzeko eta ordaintzeko:

JUSTIFIKAZIO AGIRIAK	
1	Eranskina: "Justifikazioa", orain arte erakunde pribatu edo publikoei helburu bererako eskatu edo jasotako gainerako laguntzei buruzko erantzukizunpeko adierazpena barne.
2	"Finantza-memoria" eranskina, gastuekin eta ordainagiriekin batera.
3	Dirulaguntzaren xede diren gastuen egiaztagiriak eta egindako ordainketen egiaztagiriak, bi kasuetan, eskaera egiteko unean aurkeztu ez badira.
4	Sustatzailearen lan-bizitza, enpresaren lehen urtean Gizarte Segurantzaren alta emanda egon dela egiaztatzen duena, edo dagokion mutualitateko dokumentazioa, profesional elkargokideen kasuan. Enpresaren alta-datatik 12 hilabete igaro ondoren emandako dokumentua (Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan alta emandako eguna edo, hala dagokionean, zentsu-aitorpenaren alta-data).
5	Kontratazioaren bidez enplegua sortuz gero: Enpresaren lan-bizitza, enpresaren lehen urtean enpleguari eutsi diola egiaztatzen duena.

Dirulaguntza eta ordainketak eskatzeko unean Udal Diru-bilketa, Foru Ogasuna eta/edo Gizarte Segurantzarekin egunean ez dauden erakundeek egiaztatu beharko dute egunean daudela.

Dokumentazioa telematikoki aurkeztu beharko da, eta laguntzaren espedientean sartu beharko da, inoiz ez enpresaren dokumentazioaren atalean.

Ez dira onartuko posta elektronikoz aurkeztutako justifikazioak. Era berean, eranskin guztiak osorik bete beharko dira.

12. ARTIKULUA. ONURADUNEN BETEBEHARRAK

Laguntza horien onuradunek beren gain hartuko dituzte Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 14. artikuluan jasotako betebeharrak orokorrak. Ondorio horietarako, betebeharrak berriaz ezartzen dira aplikagarritzat, honako betebeharrak hauei erreferentzia eginez (adierazpenezkoa eta ez mugatzailea):

- a) Laguntza diruz lagundutako jarduerak egiteko erabiltzea.
- b) Diruz lagungarriak diren gastuak justifikatzeko eskatutako dokumentazioa aurkeztea, ezarritako moduaren eta denboraren arabera.
- c) Jasotako laguntzen aplikazioari buruzko egiaztapenak gordetzea, egiaztapen- eta/edo ikuskapen-jarduketan xede izan daitezkeen bitartean, eta, betiere, aplikatzekoa den araudian ezarritako epean.
- d) Proiektua osatzen duten jardueren gastu eta diru-sarrera guztiak kontabilizatzeko.
- e) Kontabilitate-liburuak behar bezala eramatea, horretara behartuta dagoenean.
- f) Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izatea.
- g) Donostia Sustapenari jakinaraztea laguntzak emateko kontuan hartutako edozein inguruabar subjektibo zein objektibo aldatu dela.
- h) Donostia Sustapenak, bere eginkizunak betetzeko, emandako laguntzei buruz eskatzen duen informazio guztia ematea.
- i) Helburu bererako beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo bestelako baliabiderik jaso bada, horren berri ematea Donostia Sustapenari.
- j) Donostia Sustapenak jasotako laguntzarekin lotuta deitu ditzakeen jardunaldietan parte hartzea (proiektuen aurkezpena, jarduerak, emaitzen jarraipena, etab.).
- k) Laguntzaren xede den eskaeran aurkeztutako baldintzak aldatzen dituen edozein zirkunstantziaren berri ematea Donostia Sustapenari.
- l) Hala badagokio, Donostia Sustapenarekin lankidetzan aritzea finantza kontroleko eta egiaztapeneko jardueretan, eskatzen zaion informazio eta dokumentazio guztia zure esku jarritz.
- m) Laguntzaren xede den jardura gauzatzeko beharrezkoak diren lizentzia eta baimen guztiak izatea.
- n) Oinarri hauetako 3. eta 4. artikuluetan adierazitako baldintzak betetzea.
- o) Emandako laguntzaren bigarren ordainketa kobratu ahal izateko, emandako laguntzaren bigarren ordainketa kobratzeko, gutxienez 12 hilabetez mantentzea enpresa eta laguntza

eragin duten bazkideen alta (Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan alta emandako eguna, edo, hala badagokio, zentsu-aitorpenaren alta-data).

- p) EAEko hizkuntza ofizialen erabilera bermatzea (euskarari lehentasuna emanez) komunikazio-euskarrietan (webgunea, RRSS, emailing-ak, megafonia, etab.), sustapen- eta zabalakunde-materialak editatzea, hizkuntza antolatutako jardunaldi eta ekitaldietan, etab. Erakunde eskatzaileek testuak itzultzeko eta zuzentzeko aholkularitza eskatu ahal izango diote Donostiako Udaleko Euskara Zerbitzuari (gehienez 1.000 karaktereko itzulpenak hilabetean eta 9.000 karaktereko zuzenketak), baldin eta zerbitzuaren baldintzak eta ezaugarriak betetzen badira (<https://www.donostiaeuskaraz.eus/euskaraz/dirulaguntzak/lang/eu>)

13. ARTIKULUA. ITZULKETA

Onuradunak jasotako laguntza itzuli beharko du, gehi diruaren legezko interesa –emandako zenbatekoak ordaintzen diren unetik aurrera–, honako kasu hauetako edozeinetan:

- Oinarri hauetan aurreikusitako betebeharrak modu larrian eta behin eta berriz ez betetzea. Ez-betetze larritzat eta/edo errepikatutzat joko da oinarri hauetako betebeharren bat edo batzuk behin baino gehiagotan ez betetzea; aurkeztutako edozein datu, ziurtagiri, txosten eta/edo dokumentazio faltsutzea edo faltsutzea; eta/edo oinarri hauen esparruan jasotako laguntza osoa edo zati bat aurreikusitako helburuez bestelako baterako desbideratzea.
- Laguntzaren zertarakoa oinarri hauetan aurreikusitako moduan justifikatzeko betebeharra ez betetzea, eta justifikazio nahikoa ez izatea.
- Onuradunaren jardueran egin daitezkeen egiaztatze- eta ikuskatze-jarduerari uko egitea, eragozpenak jartzea, oztopoak jartzea edo uko egitea, bai eta kontabilitate-, erregistro- edo dokumentu-betebeharrak ez betetzea ere, baldin eta, horren ondorioz, ezin bada egiaztatu jasotako ekarpenei emandako enplegua, finantzatutako jardueren errealitatea eta erregularitasuna, edo helburu bererako beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuk, edozein administrazio edo erakunde publiko edo pribatutatik (nazionalak, Europar Batasunekoak edo nazioarteko erakundeetakoak) datozenak.
- Jarduera gainfinantzatzuz gero, gastatu gabeko edo gainfinantzatutako zenbatekoan.

Donostia Sustapenak ekarpena itzuli beharko du, oinarri hauetan ezarritako kausaren bat gertatzen dela egiaztatuz eta onuradunari bidaliz, jarraian deskribatutako baldintzetan.

Itzulketa laurogeita hamar (90) egun naturaleko epean egin beharko da, Donostia Sustapenak, burofax bidez, onuradunari artikulua honetan aurreikusitako itzulketa-arrazoiren bat gertatzen denetik zenbatzen hasita.

Itzulketa-kausa horietakoren bat gertatuz gero, onuradunak eskubidea galduko du, halaber, ordaintzeke gera daitezkeen zenbatekoak kobratzeko.

Nolanahi ere, laguntza hauek jasotzeko eskatzen diren baldintzak uneoro bete eta mantendu beharko dira. Bestela, Donostia Sustapenak horiek itzultzeko eskatu ahal izango du, aurreko paragrafoetan zehaztutako baldintzetan. Era berean, ez-betetze larrienen kasuan, hala nola datuak faltsutzea edo jasotako laguntza osoa edo haren zati bat desbideratzea, Fomento de San Sebastián SA sozietateak ahalmena izango du emandako laguntza baliogabetzeko eta, hala badagokio, jasotako zenbateko guztiak itzultzeko, eta, horrez gain, jasotako zenbatekoaren bost halako ordaintzeko eskatuko du.

14. ARTIKULUA. DATU PERTSONALEN BABESA

Datuak babesteko indarrean dagoen araudian ezarritakoaren arabera, jakinarazten da ematen dizkigun datu pertsonalak Donostiako Udalak tratatuko dituela, eta Donostiako Udala izango dela tratamenduaren arduraduna, eta Fomento de San Sebastián SA sozietateak kudeatuko duela informazioa, tratamenduaren eragilea den aldetik.

Tratamenduaren helburua zure laguntza-eskaera izapidetzea eta kudeatzea da.

Tratamenduaren zilegitasun-oinarria DBEOren 6.1.e) artikulua da: tratamendua beharrezkoa da interes publikoaren alde edo tratamenduaren arduradunari emandako botere publikoak gauzatzeko egindako misio bat betetzeko: 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriena, eta 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeena, eta 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, Dirulaguntzei buruzkoa.

Oinarri hauetan edo dagozkien eskabide-inprimakietan hala adierazten bada, datu pertsonalei buruz eskatutako informazioa ematea nahitaezkoa izango da, eta datu horiek ez emateak edo datu okerrak emateak ezingo du zure eskaera kudeatu.

Oinarri hauetan araututako laguntzen onuradunek emandako datu pertsonalak lagako zaizkie laguntza horiek kofinantzatzen dituzten eta/edo Donostia Sustapenarekin kudeaketan elkarlanean aritzen diren erakunde nazionalak edo nazioz gaindikoei, beharrezkoa denean eta horiek ematea kudeatzeko soilik.

Era berean, jakinarazten da laguntzak emateak berekin ekarriko duela onuradunaren identifikazio-datuak jakinaraztea edo lagatzea, emandako laguntzaren zenbatekoarekin batera Donostia Sustapenaren webgunean eta Dirulaguntzen Datu-base Nazionalan argitaratuz.

Ez dago aurreikusita hirugarrenentzako datuen komunikazio gehigarririk, legeko betebeharra izan ezik, eta ez dago aurreikusita datuen nazioarteko transferentziarik.

Tratamendu honen xede diren datu pertsonalak bildu ziren helburua betetzeko eta helburu horretatik eta datuen tratamendutik erator litezkeen erantzukizunak zehazteko behar den denboran gordeko dira. Artxiboak eta dokumentazioari buruzko araudian xedatutakoa aplikatuko da.

Eraginpeko pertsonak datuak eskuratzeko, zuzentzeko eta ezabatzeko eskubideak baliatu ahal izango dituzte, bai eta datuak babesteko indarrean dagoen araudian jasotako beste eskubide batzuk ere, hala dagokionean, Donostiako Udalaren Udalinfo Zerbitzuaren aurrean (Easo kalea 41, 20006 Donostia).

Zure eskubideak baliatzean ez bazaizu behar bezala erantzun edo erantzun, erreklamazioa aurkeztu ahal izango duzu Datuak Babesteko Euskal Bulegoan. Helbidea: Tomas Zumarraga Dohatsuaren kalea 71, 3. solairua - 01008 Victoria-Gasteiz. Hala ere, aldez aurretik eta nahi izanez gero, Donostiako Datuak Babesteko ordezkariarekin harremanetan jarri ahal izango da: dbo@donostia.eus.

15. ARTIKULUA. AZKEN XEDAPENA

Indarrean sartzea eta onartzea.

Oinarri hauek Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarriko dira eta bertan argitaratu eta hurrengo egunean jarriko dira indarrean.

Eskabidea aurkezteak bere oinarriak erabat onartzea dakar.

Erantzukizunetik salbuestea.

Onuraduna izango da laguntzaren xede den jarduera egin aurreko edo ondorengo jarduketan ondorioz edo horren ondorioz sortzen diren kalte pertsonalen eta/edo materialen erantzule bakarra, eta Donostia Sustapenaren esku utziko du kontzeptu horiengatik edozein erantzukizun.

16. ARTIKULUA. ARAUBIDE JURIDIKOA

Ematen diren laguntzak Oinarri hauetan jasotako arauen arabera arautuko dira, eta, modu osagarrian, DLOn eta hura garatzeko Erregelamenduan jasotako arauen arabera. Erregelamendu hori uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuak onartu zuen, DLOren Erregelamendua onartzen duenak (aurrerantzean, DLOE). Dena den, DLO horretan jasotako kudeaketa-printzipioei eta 20. artikuluan aipatzen diren informazio-printzipioei dagokienez soilik arautuko dira, eta hori guztia Lege Orokorraren 3.2 artikuluaaren bigarren paragrafoaren arabera, aplikazio hori zehazten baitu.

Bestela, aipatutako DLO eta DLOE horiek oinarri hauek lege-testu horietara berariaz igortzen direnean bakarrik aplikatuko dira.

Donostian, sinaduraren egunean

Ane Oyarbide

Tokiko Ekonomia eta Enpleguko zinegotzi ordezkaria.